

## **Dedikazio eskusiboko oposizioo zinegotzi bat izendatzea**

500/19 DEKRETUA.- Kontuan harturik Euskadiko Toki Erakundeen apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 33 artikulua esaten duela 10.000 biztanletik gora duten udalek bermatu egingo dutela, gutxienez, oposizioo zinegotzi batek dedikazio eskusiboa izango duela udal gobernu kontrolatu eta fiskalizatzeko eginkizunak modu eraginkorrean burutu ahal izateko, eta oposizioaren eskubide hori hauteskundeetan ordezkapenik handiena lortu duen alderdi edo koalizioari dagokiola, eta bestela, botorik gehien lortu duen indarrari.

Gogoan izanik 2019ko maiatzaren 26an egindako hauteskundeetako emaitzak eta ikusirik gaur egungo gobernuo taldea EAJ-PNV eta PSE-EE (PSOE) alderdiek osatzen dutenez, oposizioo lehen alderdia EH BILDU Trapagaran udal taldea dela.

2019ko azaroaren 14an EH BILDU Trapagaran udal taldeak oposizioo lehen talde gisa, eskari bat aurkeztu zuenez, dedikazio eskusiboko zinegotzi liberatu bat edukitzeko eskubidea erabiltzeko eta Elena Reyero Alabort andrea izendapena proposatu zuenez horretarako.

2019ko azaroaren 28an egindako osoko bilkuran erabaki zenez urtean 32.000 euro gordin (14 hilerokotan jasoko direnak) izango zela dedikazio eskusiboko zinegotziari dagokion ordainsaria.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen duen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75.5 artikulua ematen dizkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

### **EBATZI DUT**

LEHENENGOA.- Elena Reyero Alabort andrea izendatzea, 2019ko abenduaren 1etik aurrera, dedikazio eskusiboko oposizioo zinegotzi gisa, udal gobernu kontrolatu eta fiskalizatzeko eginkizunak modu eraginkorrean burutu ahal izateko, osoko bilkuran kasu horretarako finkaturiko ordainsaria dagokiolarik.

BIGARRENA.- Interesdunari jakinaraztea ebazpen hau.

HIRUGARRENA.- Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki oholean argitaratzea ebazpen hau.

LAUGARRENA.- Dekretu honen berri ematea egiten den hurrengo osoko bilkuran.

Valle de Trápaga-Trapagaranen, bi mila eta hemeretzi azaroaren hogeita bederatzian.

### **ALKATEA**

Xabier Cuéllar Cuadra